Hernaniko Udala

JATORRI ANIZTASUNA ZENBAKITAN. HERNANI, 2026



aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNEA

AURKIBIDEA

UDALERRIKO BIZTANLERIAREN BANAKETA OROKORRA 2


UDALERRI BARRUAN, ZONALDEKAKO BANAKETA – SEKZIO ADMINISTRATIBOAK 6

BIZTANLEEN BILAKAERA ETA DINAMIKAK 7

LURRALDE KONPARAKETA 9

UDALERRIKO BIZTANLERIAREN BANAKETA OROKORRA


Udal erroldaren arabera, 2026ko urtarrilaren 1ean Hernanik 20.546 biztanle zituen. Biztanle hauen jaiolekuari dagokionez, hernaniar guztien ia %76 Euskal Herrian jaioak dira (15.529 pertsona), %11 Espainiako herrialdeetan jaioak (2.168 pertsona), eta %14 munduko beste hainbat herritan jaioak (2.849 pertsona).



Euskal Herrian jaiotako herritarrak


Euskal Herrian jaiotako biztanleak nola banatzen diren ikusita, herritar guztiekiko ehunekoetan, %30,2 Hernanin bertan jaioak dira (6.210 pertsona), %41,8 Gipuzkoako beste herrietan (8.584 pertsona), eta %3,6 Euskal Herriko beste sei lurraldeetan (735 pertsona).

Euskal Herrian jaiotako hernaniarrekin jarraituz, ikus daiteke sexuaren arabera nahiko orekatuta dagoen taldea direla. Aldiz, adinaren arabera ezberdintasunak antzematen dira. Udalerrian bertan jaiotako herritarrak dira, batez ere, adin media gazteena dutenak, 37,2 urte baitituzte, batez beste. Aldiz, Gipuzkoako beste herrietan jaiotako hernaniarrek batez beste 46,9 urte dituzte. Azkenik, Euskal Herriko gainerako herrietatik etorritako biztanleak dira media altuena dutenak: 56,7 urtekoa, hain zuzen ere.



Espainiako herrialdeetan jaiotako herritarrak


Udal erroldako datuen arabera, Espainiako herrialdeetan jaiotako 2.168 pertsona bizi dira Hernanin, herritarren %11. Honakoak dira hamar jatorri nagusiak: Cáceres (472 pertsona), Salamanca (224), Badajoz (157), Palentzia (112), Burgos (111), Granada (76), Jaén (75), Madril (72), Valladolid (72) eta Bartzelona (64).



Espainiako herrialdeetan jaiotako hernaniarren %55 emakumeak dira eta %45 gizonak. Bestalde, adinari dagokionez, herritar hauen %70ak 65 urte edo gehiago ditu, eta batez besteko adina 68 urtekoa da. Jaioterri nagusietako datuek ere herritar talde honen "zahartzea" berresten dute: cacerestarren batez besteko adina 73,7 urtekoa da, salamancarrena 73,1 urtekoa, eta badajoztarrena 68,3 urtekoa, besteak beste. Hau ulertzeko, kontuan hartu behar da biztanle hauen gehiengoa XX. mendeko migrazio-fluxuekin iritsi zela Hernanira. Horrek azaldu dezake biztanle hauen artean emakumeek pisu handiagoa izatea ere, zahartzearen feminizazioa dela eta. Edonola ere, Bartzelonatik eta Madriletik etorritako herritarrak dezentez gazteagoak dira (42,5 eta 49,3 urte dituzte batez beste eta hurrenez hurren), migrazio-fluxu berriekin iritsitako herritarrak baitira ziurrenik.

Munduko gainerako herrialdeetan jaiotako herritarrak


Aipatu bezala, munduko beste herrialdeetan jaiotako hernaniarrek biztanleriaren %14 osatzen dute. Hauen erdia baino gehiago Amerikan jaioa da (hernaniarren %7,5): 1.537 herritar guztira. Ia laurden bat (%3,4) Afrikatik etorri da: 698 pertsona. Europako beste herrialdeetan jaiotakoei dagokienez, hernaniarren %2,1a osatzen dute: 430 pertsona. Azkenik, Asian jaiotakoak 181 herritar dira eta Ozeaniatik etorritako 3 pertsona ere bizi dira Hernanin.




Jatorrizko herrialde nagusiei erreparatzen bazaie, Maroko dago lehen postuan, bertan jaioak baitira 385 hernaniar (herriko biztanleria osoaren %1,9). Jarraian, Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikako herrialdeak daude: Nikaragua (270 pertsona), Honduras (357), Kolonbia (245) eta Ekuador (197). Eta, ondoren, Errumania (111), Pakistan (97), Argentina (87), Kuba (86) eta Portugalek (85) osatzen dute jatorrizko herrialde nagusien zerrenda.

Munduko beste herrialdeetatik etorritako biztanleak orokorrean aztertuta, sexuen araberako banaketa nahiko orekatuta dago, emakumeak pixka bat gehiago diren arren (%53 emakumeak eta %47 gizonak). Banaketa hau jatorrizko kontinenteen arabera aztertuta, ordea, desoreka nabarmenak antzematen dira emakume zein gizonen alde. Esaterako, Amerikatik etorritako biztanle gehienak emakumeak dira (%62); Afrikatik eta Asiatik etorritakoak, berriz, gizonak (%63 eta %59, hurrenez hurren). Aldiz, Europako beste herrialdeetatik etorritako biztanleak nahiko orekatuta daude sexuari dagokionez (%51 emakumeak eta %49 gizonak).

Herrialde nagusietako datuek ere Amerikatik datorren immigrazioaren feminizazioa erakusten dute: nikaraguarren %67 eta hondurastarren %75 emakumeak dira, besteak beste. Baita Afrikatik eta Asiatik datorren immigrazioaren maskulinizazioa ere: esaterako, gizonak dira Hernanin bizi diren marokoarren %61; baita pakistandarren %73 ere.



Munduko beste herrialdeetan jaiotako biztanleen batez besteko adina 38,7 urtekoa da, Euskal Herrian eta Espainiako herrialdeetan jaiotakoena baino gazteagoa (43,5 eta 68 urte dituzte, batez beste eta hurrenez hurren). Beraz, esan daiteke biztanle hauek udalerria gaztetzen laguntzen dutela. Bereziki gazteak dira Hernanin bizi diren asiarrak, 35,7 urte baitituzte batez beste. Ondoren, amerikarrak eta afrikarrak dira gazteenak, batez besteko 37,9 eta 38 urterekin. Eta, azkenik, adin media zaharrena europarrek dute: 43,5 urte. Kasu guztietan, lan egiteko adinean kontzentratzen dira multzo honetako herritar gehienak eta 65 urtetik gorakoak oso gutxi dira.



UDALERRI BARRUAN, ZONALDEKAKO BANAKETA – SEKZIO ADMINISTRATIBOAK

Hernani 16 sekzio administratibotan banatuta dago eta zonalde bakoitzak ezaugarri ezberdinak ditu bertako biztanleriaren jatorri aniztasunari dagokienez. Garrantzitsua da zonaldekako azterketa egitea, horren bidez lortzen baita bistaratzea zenbateko jatorri aniztasuna duen sekzio bakoitzak eta jatorri berdineko herritarren kontzentrazio handirik ba ote dagoen udalerrian.

Euskal Herrian jaiotako biztanleria ehunekorik altuena "Ereñotzu – Epele" zonaldeak du, zonaldeko herritarren %92,3. Era berean, "Iturregi – Marieluts" eta "Karobieta – Txantxilla - St. Barbara" sekzioek ere Euskal Herrian jaiotako biztanleen ehuneko handiak dituzte (%84,7 eta %82,7, hurrenez hurren). Gogoratu behar da udalerriko media %76koa dela. Beste muturrean, ehuneko txikiena duen zonaldea, berriz, Orkolaga da (%59,8).

Espainiako herrialdeetan jaiotako hernaniarrei dagokionez (orokorrean %11 osatzen dute), "Orkolaga"-n eta "Lizeaga – Larramendi"-n ikusten da ehuneko handiena (auzotarren %18,4 eta %17, hurrenez hurren). Ehuneko txikiena, ostera, "Ereñotzu – Epele"-n eta "Karkaba-Udaletxeko plaza" arteko sekzioan osatzen dute (%2,6 eta %6, hurrenez hurren).

Bukatzeko, munduko beste herrialdeetan jaiotako hernaniarrek biztanleen %14 osatzen dute, baina zonaldeka ehuneko hori dezente aldatzen da. "Plaza Berri – Txirrita - Zinkoenea" da ehuneko handiena duen sekzioa (%24,2), eta, "Zikuñaga – Akarregi – Mantindegi – Osinaga" bigarrena (%23,1). Eta ehuneko txikiena, berriro ere, "Ereñotzu – Epele"-n osatzen dute (%5,1).

Azken urtebeteko altak eta bajak

Azken urtean Hernaniko biztanleriak izan dituen mugimenduak hobeto ulertzeko, 2025. urteko erroldako altak eta bajak aztertuko dira jarraian, baita hortik eratorritako migrazio-saldoa ere. Migrazioari lotutako mugimenduak soilik hartuko dira kontuan, jaiotzak eta heriotzak alde batera utzita.

Udal erroldan emandako altei dagokienez, 2025ean zehar 965 pertsonek eman zuten alta Hernanin. Gehienak, hau da, 597 pertsona, munduko beste herrialde batzuetatik iritsitako biztanleak izan ziren. Bestalde, Euskal Herrian jaio eta Hernanira bizitzera etorri zirenak 316 pertsona izan ziren, eta Espainiako herrialdeetan jaioak, berriz, 52 pertsona.

Bestalde, 2025. urtean 785 herritarrek Hernani utzi zuten. Hauetako 329 Euskal Herrian jaioak ziren, 63 Espainiako herrialde batean, eta 393 pertsona munduko beste lurralde batzuetan. Udal erroldan baja eman zuten pertsona guztien batez besteko adina 37 urtekoa izan zen, eta alta eman zutenena, berriz, 34 urtekoa. Beraz, biztanleriaren mugimendu hauek udalerria gaztetzen lagundu dutela esan daiteke.


Altak eta bajak kontuan hartuta, 2025eko migrazio-saldoa positiboa izan zen herrian: 180 pertsona gehiago iritsi ziren Hernanira, udalerritik joan zirenak baino. Hau munduko beste herrialde batzuetatik etorritako herritarrei esker gertatu zen bereziki, udalerritik joan zirenak baino 204 pertsona gehiago iritsi baitziren Hernanira munduko herrialde ezberdinetatik. Euskal Herrian eta Espainiako lurraldeetan jaiotako herritarren migrazio-saldoak, berriz, negatiboak izan dira: -13 pertsonako saldo negatiboa Euskal Herrian jaiotakoen artean, eta -11 pertsonako saldo negatiboa espainiarrei dagokienez.

BIZTANLEEN BILAKAERA ETA DINAMIKAK[1]


Azken urteotan udalerriko migrazio-dinamikak aldatu dira, eta horiekin batera biztanleriaren jatorri konposizioa ere aldatu da. Horregatik, atal honetan, jaiolekuaren arabera eta 2007tik gaur egun arte biztanleriak izan duen bilakaera aztertuko da. Udal erroldako datuekin beharrean, atal hau INEko datuekin osatu da.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, jatorri batzuk udalerrian zuten pisua galtzen ari dira beste batzuek pixkanaka pisua irabazten duten bitartean. Esaterako, Nafarroan eta Espainiako beste herrialdeetan jaiotako biztanleek hernaniarren %20a osatzen zuten 2007an; 2025an, berriz, %13a osatzen zuten. Aldiz, munduko beste herrialdeetan jaiotako herritarrak %4 izatetik %13 izatera igaro ziren 2007 eta 2025 urteen bitartean. EAEn jaiotako hernaniarrek, berriz, ehuneko antzekoa mantendu dute urte guzti hauetan zehar: %76 ziren 2007an eta %74 2025ean.

[1] Atal honetan datu iturri moduan INE erabili da. Hortaz, Euskal Herri osoko datuak erabili ordez, Euskal Autonomia Erkidegoko datuak erabiliko dira, eta Nafarroako datuak Espainiako beste herrialdeetakoekin batera aurkeztuko dira. Eta Ipar Euskal Herriko datuak Frantziaren barruan daudenez, munduko beste herrialde bezala.




Estatutik kanpoko herrialdeetako hernaniarren datuak xeheago aztertzen badira, ikusten da 2007 eta 2025 urteen bitartean, kontinente bakoitzeko biztanleek duten pisua aldatuz joan dela. Hasteko, amerikarren ehunekoak gora egin du etengabe: 2007an munduko beste herrialdeetan jaiotako hernaniarren %45 amerikarrak ziren, eta 2025an %54 dira, alegia, beren pisua handitu dute. Afrikarrek ere gorakada nabarmena izan dute: 2007an %14 izatetik 2025ean %25 izatera, betiere Estatutik kanpoko herritarren artean. Europarren ehunekoak behera egin du urte hauetan zehar: 2007an %37 ziren, eta 2025ean %15. Bestalde, asiar jatorriko herritarren ehunekoak ere gora egin du, baina modu apalagoan: 2007an %3 izatetik 2025ean %6 izatera. Laburbilduz, munduko herrialde ezberdinetan jaiotako hernaniarren profila aldatzen joan da urte hauetan zehar, europarrek beren pisu erlatiboa apaldu baitute, beste kontinenteena igo den bitartean.



LURRALDE KONPARAKETA[2]

Udalerri baten errealitate demografikoa ulertzeko orduan, ezinbestekoa da lurralde-ikuspegia aplikatzea eta datuen interpretazioa testuinguru orokorrago batean kokatzea. Horregatik, Hernaniko datuak Donostialdeako gainerako udalerrietako datuekin alderatuko dira.

Udalerri bakoitzaren biztanleria ehunekoei erreparatuz, Donostialdean Oiartzun da EAEn jaiotako biztanle gehien dituena (%84,6); eta, ondoren, Astigarraga (%80,5) eta Usurbil (%80,4). Hernani, berriz, seigarren postuan dago (%74,4), Urnietaren atzetik (%75,1) eta Andoainen aurretik (%72,2). Edonola ere, EAEn jaiotako biztanleek Hernanin osatzen duten ehunekoa Gipuzkoa osoko bataz bestekoaren oso antzekoa da (%72,9).



[2] Atal honetan datu iturri moduan INE erabili da. Hortaz, Euskal Herri osoko datuak erabili ordez, Euskal Autonomia Erkidegoko datuak erabiliko dira, eta Nafarroako datuak Espainiako beste herrialdeetakoekin batera aurkeztuko dira. Eta Ipar Euskal Herriko datuak Frantziaren barruan daudenez, munduko beste herrialde bezala.

Bestalde, Espainiako herrialdeetan jaiotako biztanleen ehunekoa (kasu honetan Nafarroa barne dago) Gipuzkoako batez bestekoaren oso antzekoa da Hernanin (Gipuzkoako batez bestekoa %13,2 da eta Hernanikoa %13,1). Donostialdeari erreparatuz, espainiar jatorriko herritarren ehuneko handiena duen udalerria Lasarte-Oria da (%20,6); bigarrena, Errenteria (%18,1); eta, hirugarrena, Andoain (%17). Ehuneko txikiena, berriz, Oiartzunen osatzen dute (%7,9), eta, ondoren, Astigarragan (%10) eta Usurbilen (%10,4).

Bukatzeko, munduko beste herrialdeetan jaiotako biztanleen ehunekoa Gipuzkoako batez bestekoa baino txikiagoa da Hernanin: Gipuzkoan %13,9 eta Hernanin %12,5. Donostialdeako beste udalerriekin alderatuta, berriz, bosgarren postuan dago, Errenteriaren ondoren (%13,8) eta Andoainen aurretik (%10,8). Bestalde, eskualde osoan munduko beste herrialdeetatik etorritako herritarren ehuneko handiena duen udalerria Pasaia da (%17,3). Ehuneko txikiena duena, berriz, Oiartzun (%7,5).